

ZARAUTZ / Liburu bilketa benetan arrakastatsua

Hegoaldeko Cuba, Honduras ... eta Sahara kanpainarako liburu bilketa benetan arrakastatsua izan da. Dakizuenez, ELAN-Euskadi taldekoek bildutakoa Cuba eta Hegoaldeko herrietara bidaliko dute. Aurten ere, Saharautz Elkartasun taldeak kanpainan parte hartu du eta bildutakoarekin hainbat garaitan bigarren eskuko merkatuak jarriko dituzte. Sanz Enea Liburutegian guztira 1.079 dokumentu bildu dira, horietatik 994 liburu, ipuin eta entziklopediak izan dira eta beste 285, berriz, ikus-entzunezkoak (CD, VHS, DVD, DC-ROM). Sanz Enea Liburutegitik, ELAN-Euskadi eta Saharautz Elkartasun taldearen partez eskerrak eman nahi dizkiegu, bilketa honez bidez beste herri batzuetako biztanleei laguntzeko prest izan diren guztioi.